**Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako**
**Foru Auzitegi Administratiboa**

**Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales**

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**
**DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**

**Recurso 1/2015 errekurtsoa**
**Resolución 2/2015 ebazpena**

<u>Lehendakaria/Presidente</u>
Juan Ramón Ciprián Ansoalde

<u>Idazkari-Kidea/Vocal Secretaria</u>
Mª Aranzazu Arana Learte

AERO FERR NORTE SA enpresak kontratazio alorreko errekurtso berezia jarri baitzuen Foru Administrazioko eta Funtzio Publikoko foru diputatuaren 2014ko abenduaren 22ko Foru Aginduaren aurka (X14030 espedientea), zeinaren bidez onartu baitziren posta azkarraren zerbitzua kontratatzeko lizitazio iragarkia eta baldintza orriak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak erabaki hau hartu du, aho batez, 2015eko urtarrilaren 29an egindako bileran, goian aipatu diren kideak bertan direla:

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por AERO FERR NORTE S.A. contra el anuncio de licitación y los pliegos del contrato del servicio de correo urgente aprobados por Orden Foral de la Diputada de Administración Foral y Función Pública de 22 de diciembre de 2014 (expediente X14030), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada el día 29 de enero de 2015, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

## AURREKARIAK

**LEHENA.-** 2014ko abenduaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, ebazpen honen izenburuan aipatutako kontratuaren lizitazio iragarkia argitaratu zen.

(…), AERO FERR NORTE SA enpresaren administratzaile bakar gisa jardunez, kontratazio arloko errekurtso berezia aurkeztu zuen iragarkiaren eta kontratu horren baldintza orrien aurka. Errekurtsoa 2015eko urtarrilaren 19an aurkeztu zuen Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoan, organo horri zuzenduta.

**BIGARREN.-** Urtarrilaren 19an bertan, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak ebazpena eman zuen, zeinaren bidez erabaki baitzuen errekurtsoa ez onartzea eta Gipuzkoako Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboari bidaltzea, errekurtsoaren berri izan eta ebaztea organo horri

## ANTECEDENTES DE HECHO

**PRIMERO.-** En el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 30 de diciembre de 2014 se publicó el anuncio de licitación del contrato mencionado en el encabezamiento de esta resolución.

(…), actuando en calidad de administrador único de AERO FERR NORTE S.A., interpuso recurso especial en materia de contratación contra el anuncio y los pliegos del contrato. El recurso lo dirigió al Órgano Administrativo de Recursos Contractuales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y lo presentó el día 19 de enero de 2015 en el registro de dicho órgano.

**SEGUNDO.-** El mismo día 19 de enero el Órgano Administrativo de Recursos Contractuales de la Comunidad Autónoma de Euskadi dictó resolución por la que acordó inadmitir el recurso y remitirlo al Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales de Gipuzkoa, por entender que es a éste al que le corresponde el conocimiento y la resolución del mismo. Todo

dagokiola iritzita. Hori guztia urtarrilaren 23an jaso zen auzitegi honen erregistroan.

ello tuvo entrada en el registro de este Tribunal el día 23 de enero.

**HIRUGARRENA.-** 2010eko irailaren 28ko 24/2010 Foru Dekretuak, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzekoak, 5. artikuluan aurreikusitakoa betez, auzitegi honetako batzarkide-idazkari Maria Yeregui Hernandez andreak, urtarrilaren 27ko idatziaren bitartez, jakinarazi zuen ezin zuela parte hartu errekurtso horren azterketan, eztabaidan eta botazioan, Foru Administrazioko eta Funtzio Publikoko Departamentuko idazkari teknikoa delako eta, kargu horren zereginak betez, errekurtsoaren xede den kontratazio prozeduran parte hartu zuelako. Auzitegiak onartu egin du abstentzio hori.

**TERCERO**.- Mediante escrito fechado el 27 de enero y en cumplimiento de lo previsto en el artículo 5 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral del Recursos Contractuales, la Vocal Secretaria de este Tribunal, María Yeregui Hernández, ha comunicado su obligación de abstenerse de intervenir en el estudio, deliberación y votación de este recurso, debido a que en el desempeño de su cargo de Secretaria Técnica del Departamento de Administración Foral y Función Pública ha intervenido en el procedimiento de contratación que es objeto del mismo. Abstención que ha sido aceptada por el Tribunal.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

**LEHENA.-** Errekurtso berezi hau erregulazio harmonizatuaren mende dagoen zerbitzu kontratu baten lizitazio iragarkiaren eta baldintza orrien aurka aurkeztu zen; kontratu hori, bestalde, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bategineko (SPKLTB) 16.1.b) artikuluan aurreikusietako bat da.

**PRIMERO.-** El presente recurso especial se interpone contra el anuncio de licitación y los pliegos de un contrato de servicios sujeto a regulación armonizada, de los contemplados en el artículo 16.1.b) del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público aprobado por Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre (TRLCSP).

Beraz, kontratazio alorreko errekurtso berezia jar daiteke aurkaratutako egintzaren aurka, hala xedatzen baita Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bategineko 40. artikuluko 1.a) eta 2.a) ataletan. Errekurtso horren ardura auzitegi honen eskumena da, 2010eko irailaren 28ko 24/2010 Foru Dekretuak, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzekoak, 2.1.a) artikuluan emandako ahalmenaren arabera.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1.a) y 2.a) del artículo 40 TRLCSP. Y la competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.3.a) del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

Errekurtsogileak legitimazioa du errekurtsoa jartzeko, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bategineko 42. artikuluan xedatutakoaren arabera; izan ere, interesa du lizitazio prozeduran lehiatzeko.

La recurrente está legitimada para interponer el recurso, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 42 TRLCSP, puesto que manifiesta que está interesada en concurrir al procedimiento de licitación.

Bestalde, Kontratuen Legeko 44.1 artikuluak xedatzen du ezen 40.1 eta 40.2 artikuluetan adierazitako egintzetakoren baten aurkako

Por otra parte, el artículo 44.1 TRLCSP dispone que todo aquel que se proponga interponer recurso contra alguno de los actos indicados en el artículo

errekurtsoa aurkeztu nahi duen orok aurretiaz iragarri behar duela asmo hori errekurtsoa aurkezteko epearen barruan eta kontratazio organoaren aurrean aurkeztutako idatzi bidez, bertan zehaztuz zein prozedura egintza izango den errekurtsoaren xedea.

44.4.e) artikuluak dioenez, errekurtsoaren batera aurkeztu behar da betebehar hori bete dela egiaztatzen duen agiria, hori gabe ez baitzaio bide emango errekurtsoari, nahiz eta huts hori zuzendu ahal izango den hurrengo atalean xedatutakoaren arabera.

Oraingoan ez da egiaztagiri hori aurkeztu, baina, hala ere, ez da beharrezkotzat jo zuzentzeko errekerimendua egitea; izan ere, ondoren arrazoituko den legez, errekurtsoa ez da onartuko eta ez da haren funtsa aztertuko.

**BIGARREN.-** Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bategineko 44.2.c) artikuluak xedatzen du ezen lizitazio iragarkiaren aurka jarritako errekurtsoaren prozedura hasiko dela lizitazioa argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hamabost eguneko epean aurkeztu behar den idatzi baten bidez.

Kasu honetan lizitazio iragarkia 2014ko abenduaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Beraz, errekurtsoa aurkezteko epea urtarrilaren 19an amaitzen zen.

Errekurtsoa egun horretan bertan aurkeztu zen Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren erregistroan, hari zuzenduta; hark, ordea, ez zuen onartu, eta auzitegi honi bidaltzea ebatzi zuen, errekurtsoa ebazteko ardura azken horrena dela iritzita.

Errekurtsoa ebazteko eskumena auzitegi honi dagokio, hala xedatzen baitu espresuki Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontratatzailearen profilean argitaratutako kontratuaren baldintza administratibo berezien agiriko 2.2 atalak.

40.1 y 2 deberá anunciarlo previamente mediante escrito especificando el acto del procedimiento que vaya a ser objeto del mismo, presentado ante el órgano de contratación en el plazo previsto para la interposición del recurso.

Según el artículo 44.4.e), al escrito de interposición se acompañará el justificante de haber dado cumplimiento a este requisito, sin el cual no se dará curso al escrito de interposición, aunque su omisión podrá subsanarse de conformidad con lo establecido en el apartado siguiente.

En este caso no se ha aportado ese justificante, pero tampoco se ha considerado necesario efectuar un requerimiento de subsanación porque, como a continuación se razonará, el recurso va a ser inadmitido sin entrar en el fondo del asunto.

**SEGUNDO.-** El artículo 44.2.c) TRLCSP dispone que el procedimiento de recurso contra el anuncio de licitación se iniciará mediante escrito que deberá presentarse en el plazo de quince días hábiles contados a partir del siguiente al de su publicación.

En este caso el anuncio de licitación se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 30 de diciembre de 2014. Por consiguiente, el plazo para interponer el recurso terminaba el 19 de enero.

El recurso fue presentado ese mismo día en el registro del Órgano Administrativo de Recursos Contractuales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, al que iba dirigido, el cual lo inadmitió y acordó remitirlo a este Tribunal por entender que es el competente para conocer del mismo.

La competencia de este Tribunal para conocer del recurso viene expresamente indicada en el apartado 2.2 del pliego de cláusulas administrativas particulares del contrato, publicado en el perfil del contratante de la Diputación Foral de Gipuzkoa:

*"(…) Hala ere, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri aurretik, hautazko errekurtso berezia aurkez daiteke egintza hauen aurka, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeko 40. artikuluan eta hurrengoetan nahiz 2010eko irailaren 28ko 24/2010 Foru Dekretuak, aipatutako auzitegia sortu eta arautzekoak, xedatutakoaren arabera: lizitazioko iragarkien eta lizitazioa arautzen duen agiriaren eta lanaren ezaugarriak ezartzen dituen agiriaren kontra, esleipen erabakiaren aurka, eta esleipen prozeduran egindako tramiteko egintzen aurka, baldin eta tramite egintza horiek…".*

*"(…) No obstante lo anterior, con anterioridad a la interposición del recurso contencioso-administrativo, es potestativa la interposición del recurso especial en materia de contratación ante el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, de conformidad con lo dispuesto por el artículo 40 y siguientes del TRLCSP y en el Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del mencionado Tribunal, contra los anuncios de licitación, los pliegos y documentos contractuales que establezcan las condiciones que deben regir la contratación, el acuerdo de adjudicación, los actos de trámite adoptados en el procedimiento de adjudicación, siempre que estos últimos …".*

Dena den, errekurtsoa auzitegi honi era egokian zuzendu izan balitzaio ere, kontuan hartu beharko litzateke Kontratuen Legeko 44.3 artikuluak hau xedatzen duela: *"Errekurtsoa jartzeko idazkia,* ***nahitaez,*** *kontratazio-organoaren erregistroan edo errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoaren erregistroan aurkeztu beharko da".*

Aunque el recurso hubiera ido correctamente dirigido a este Tribunal, el artículo 44.3 TRLCSP establece que *"la presentación del escrito de interposición deberá hacerse* ***necesariamente*** *en el registro del órgano de contratación o en el del órgano competente para la resolución del recurso*".

Kontratuen Legeko azken xedapeneko hirugarrenak 1. atalean dioenez, lege horretan arautalthough prozedurak arautuko dira, lehenik eta behin, lege horretan bertan eta legea garatzeko arauetan jasotako aginduen bidez, eta, modu subsidiarioan, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen eta arau osagarrien bidez.

La disposición final tercera del TRLCSP dice, en su apartado 1, que los procedimientos regulados en esta Ley se regirán, en primer término, por los preceptos contenidos en ella y en sus normas de desarrollo y, subsidiariamente, por los de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, y normas complementarias.

Horrek esan nahi du ezen, kontratazio alorreko errekurtsoa jartzeko idatzia non aurkeztu behar den xedatzen duen arau bat egonik Kontratuen Legean, ez direla aplikagarri, kasu honetan, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 38.4 artikuluan aurreikusitakoak herri administrazioetako organoei zuzendutako idatziak aurkezteko tokiei buruz.

Lo cual quiere decir que, existiendo en el TRLCSP un precepto que regula el registro en el que necesariamente ha de presentarse el escrito de interposición del recurso especial en materia de contratación, no son de aplicación en este caso las previsiones del artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, relativas a los lugares de presentación de los escritos dirigidos a los órganos de las Administraciones públicas.

Ondorioz, errekurtsoa aurkezteko idatzia auzitegi honetan sartu zen egunean aurkeztu zela ulertu behar da, 2015eko urtarrilaren 23an, hain zuzen ere; epez kanpo, beraz, horretarako jarritako epea urtarrilaren 19an amaitu baitzen.

Ha de entenderse, por tanto, que el escrito de interposición del recurso se presentó el día en que tuvo entrada en el registro de este Tribunal, el 23 de enero de 2015, es decir, fuera del plazo habilitado al efecto, que finalizaba el 19 de enero.

**HIRUGARRENA**.- Errekurtsoan ez dugu antzeman, Kontratuen Legeko 47.5 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, auzitegi hau errekurtsogileei isuna jartzera bultza lezakeen fede txar edo ausarkeriarik.

Ondorioz, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

**ERABAKITZEN DU**

Ez onartzea AERO FERR NORTE SA enpresak jarritako kontratazio-arloko errekurtso berezia.

Kontratuen Legeko 49.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

**TERCERO**.- No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer a la empresa recurrente una multa en los términos previstos en el artículo 47.5 TRLCSP.

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

**ACUERDA**

Inadmitir el recurso especial en materia de contratación interpuesto por AERO FERR NORTE S.A.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 49.1 TRLCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

**Donostia, 2015eko urtarrilaren 29a / San Sebastián, 29 de enero de 2015.**